

MESEDEZ, EZ MUTILATU XABIER

Xabier Lete hamar urte hil zela-eta, zenbait liburu argitaratu eta emankizun ugari antolatuak izan dira. Ederrak gehienak. Xabierrek ondo mereziak. Txalotzekoak dira euskal argitale-txeek eta ekoizleek egin dituzten esfortzuak eta ikertzaileek bideratu dituzten peskiza sakonak ere bai.


Irakurri eta ikusi ditut liburu zein emankizun gehienak, xehetasunak xehetasun, oso onak iruditu zaizkit: ‘Euskalduna’ jauregian Joxan Goikoetxearen *Oratorium*-a, kasu. Oro har, behin baino gehiagotan, harritu egin naute aipatutako lanen kalitateak eta sakontasunak¹. Xabierren testuekin urteetan jardunearan ibili eta gero, hainbat gauza agertu berri zaizkidan aurtengo lanetan. Eskerrik asko.

Dena dela, hutsune bat antzeman dut aipatu lan eta emankizun askotan: Xabierren kristau sinesmenari buruzko isiltasuna. Lanik gehienek (salbuespenak albuespen, A. Lertxundi-*ren* edo J. K. Igerabideren artikuluak, kasu²) ez dute Xabierren kristautasuna landu edo ez dute behar beste sakondu eta, noizbait, gutxietsi-edo ere egin dute... eta isiltze horrek mutilatu egiten du Xabierren lekukotza eta oztopatzen digu haren

¹ Aipatzekoak, GURRUTXAGA, A., *Xabier Lete Aberriaren poeta kantaria*, Alberdania, 2020 eta URIEN, A., *Poesia, zaurien ukendu, Xabier Leteren arrastoan*, Pamiela, 2020.

² LERTXUNDI, A., ‘Urrutik zegok hura’; IGARABIDE, J. K., ‘Ume baten belarriarekin, bost doinu’, Balea Zuria, 2020.

literatura-lanen interpretazio zuzena. Isiltze horrekin Xabier osatugabe bat azaltzen digute, eta hori, nahita edo nahi gabe egina ere, ez da bidezkoa.



Xabier materialista izan zen, urte askoan agnostikoa eta Elizaren sakramentuetatik alde egin zuen: *Nik hamazazpi urtez gero zalantza handiak nituen erlijioarekin; neure buruari esaten nion jadanik ez nintzela katolikoa; kristaua nintzela soilik...* Xabierrek materialismo eta agnostizismoan iraun zuen urteetan bertso ederrak idatzi zituen: 'Izarren hautsa', kasu, euskal literaturaren olerkirik ederrenetakoa. Baina Xabierrek, fedea galduta ere, ez zuen inoiz bere burua ateotzat jo. Are eta gehiago ere: urte horietan barrena, Xabierrek ez zien inoiz giza eta

jainko-misterioen gaineko galderei uko egin. Eta horixe da (Xabierrek *dixit*) erlijiosoa izateko modu bat da (ohiko abiapuntua ote?³): *Erlijioa, misterioaren atarirantz begiratu bizitzea da... Ni agnostiko nintzanean, urte batzuez gustura ibili nintzen harro eta libre, erlijioaren gauza horiek mesprezatu. Halare, zenbait esparrutan eta zenbait gunetan emozioa senti neza-keen, harridura, lilura, Leireko monastegian, adibidez, mon-jeek konpletak eta salbea abesten zituztenean. Behin, oroitzen naiz 'Hemen zerbaite berezia dago' neure buruari esanez atera nintzela elizatik. Paisaiak ere asko laguntzen zuen, bango isil-tasunak, haizearen xistuak, Aragoiko mendien urdin-koloreak.*

Argitu nahi dut, bide batez eta labur-laburrean, materialista izateak ez dakarrela berez kristau sinestuna ez izatea: *Materialista izaten segitzen dut, eta uste dut hori kontziliatu daitekeela, edo uztartu daitekeela, nabi baldin bada, sinesmen edo fede batekin.*

Materialista materialista, 1989tik aurrera, Xabier, 45 urte zituela, sinesmenarekin berraurkitu zen: *Baina hoguei uste pasa ondoren, bere gaixoaldi oso larri baten denboran, Lurdes eta ni errezatzen hasi ginen berriro, bakoitza bere aldetik. Pixka bat hobea-gotzen hasi nintzanean, hiltzorian egon ondoren, Lurdesek esan zidan egun haietan otoitz egin bagenuen ez zela bidezkoa gero mutu gelditzea. Arrazoi osoa eman nion. Eta horrela hasi ginen berriro elizkizunetara hurbiltzen eta fededun bezala bizitzen... Otoitz egiten duena ez ote da sinestuna?⁴... Azken urte hauetako zenbait elkarrizketatan erlijioaz eta, batez ere, fedeaz mintzatu*

³ ARTZE, J., *Txalaparta. Tradizioaren abaroan*, Elkar, 2020, 89. or.: "Gizakion betidaniko kezka eta galdera: nor naiz ni? Nondik nator eta nora noa? Zergatik eta zertarako nago hemen?*. Nahitaez jakin beharrekoa, daki-guna gero izateko, garenak izateko. Orobat guztiontzat beti izan da zaila eta neke geure izatearen erdi-gunera iristea eta han kokaturik bizitzea, handik gogoeta egin eta aritzea". *;M. Heideggerren 'zergatik 'izakia' eta ez 'ezereza' ren bertsioa edo L. Wittgensteinen egiaztapena: 'Mistika (erlijioa) ez da nolakoa den mundua, mundua izatea baizik?'

⁴ HEILER, F., *Das Gebet*, Munchen, 1920, 1-4. or.: "Otoitza erlijioaren gertaera nagusia da".

izan naiz... ni sinestun bezala agertzen naiz. Ni sinestuna naiz, nere modura. Ez dakit modu hori erabat ortodoxoa den, nik ezetz uste dut. Baina hori beste arazoa da. Sinesmenaren beraurkitzea ez zitzaion Xabierri itzuli arrazoi hutsaren bidez, otoitzaren bidez baizik: Jainkoarenganantz joan nabi duenak -zioen Areopagoko Donisiok, lehenago otoitz egin behar du⁵, eta Xabierrek: Arrazoiarekin sinestea asko kostatzen zait ia beti (horretan ez naiz batere 'volteriano'), baina otoitzaren agonia horretan bi-zi naiz aspalditik, eta uste dut hori, neurri batean, Jainkotik hurbil bizitzea dela... Otoitz egiten duena ez ote da sinestuna?

Sinesmena errekuperatuz gero, Xabierrek honako liburuok argitaratu zituen, zeinetan erlijiozkotasunak protagonismoa handia bereganatzen zuen: *Biziaren ikurrak* (1992): *Zenbat aldiz, Jauna, gau beltzak didan estali...*; *Zentzu antzaldatuena poemategia* (1992): *Zenbat gogaituten zaitudan, Jauna...*; *Egun-sentiaren esku izoztuak* (2008): *Jaso nazazu, maitea, azkengunean, ... ni ere erruki handian salbatua izan nadin, salbatuak elkarrekin eta maitasunean glorifikatuak betirako.*

Zelan interpretatu liburu mamitsu horiek Xabierren kristau sinesmena kontuan hartu gabe? Euskaldunen zorionerako, Xabierren sinesmen-aitortza euskal literatura egina da (nola Joan Gurutzekoarena edo Leongo Frai Luisena Espainiako literaturan eta R. M. Rilkerena Alemaniakoan, eta...).

Xabier 'bere modura' izana zen kristaua, esan nahi ez duena kristaua zela bere nahieraren arabera. Xabierrek, kristau sinesmenaren forma esklerotizatutakoez landa, azalarazi zizkigun kristau sinesmenaren ezaugarrik adierazgarrietakoak. Eta hori da harri-garriena, norik azaldu eta agnostizismotik etorritako laiko batek!

1.^a Errukia dela kristau sinesmenaren benetako legamia eta ez, umezaroan erakutsi zioten bezala, bekaturia, beldurra edota legea: Jesusen *nabiago dut errukia sakrifizioak baino hura*

⁵ Evagrio Pontico (S. IV): "Teologo da egiazki otoitz egiten duena, eta teologoa da egiazki otoiz egiten duena". BALTHASAR, H. U., *Ensayos teológicos*, I., Madril, 1964, 266. or.: "La oración es la única actitud objetiva ante el misterio".

Xabierrek maisuki gaurkotu zigun: *Kristautasunaren barruan erlijio praktikaren atal nagusia da errukia, Eta errukia, besterik beste, gure naturaren jakituriatik letorke... Nik uste dut Mendiko Irakaspen edo Predikua irakurri beharko genukeela berriro (Mateoren ebanjelioan), bestearrekiko erruki adeitsuaz jabetzeko. Nazareteko Jesus errukitsua izan zen.*

2.^a Kristauok espero dugun berpiztea ez zaigu gertatuko arima ‘espiritua’ delako, Jesusen Jainkoak maite -salbatu- nahi gaituelako baizik. Xabierren sinesmen-esperientzia fidagarriagoa zaigu Platonena baino: *Ni ziur nago Jainkoak ezin deza-keela nabi beregan sinesten duten maitale leialak elkarren-gandik malapartatuak izatea... Nik agian, neronen esperien-tziari begiraturaz, honela oihukatuko nioke Jainkoari: Jauna, erruki zaitez gutaz, eta elkar mundu bonetan maite izan du-gunok ez gaitzazu heriotzaren orduan eta heriotzaren bitar-tez bereizi; elkar maite izan dugunok elkar maitatzen jarraitu nabi baitugu eternitate osoan.*

3.^a Xabierrek, neurri adierazgarri batean, irauli-edo egin zuen sinestun askoren sineskera-estatusa: *Metafisikatik erruki-ra*⁶. Dogma-ametsetik esnarazi gintuen (esnarazten lagundu, gutxienez) eta pasarazi (pasarazten lagundu)

- a. ohikoa izaten zaigun dudarik onartzen ez zuen sines-ker-a-arrazionalista hotz batetik...⁷: *Jainkoari buruzko galdera horrek zalantza eta iluntasun asko darama*

⁶ LETE, X., *Egunkaria*, 95.03.12.

⁷ Esan nahi ez duena ‘arrazoiak’ ez duela zeresanik fede-edukietan. Sines-menak, arrazionala (*rationalis*) ez bada ere, arrazionalgarria (*rationalis*) izan behar baitu. GONZALEZ FAUS, J. I., *Calidad cristiana*, Sal Terrae, 2006, 273-4. or.: “La transmisión de la fe en Occidente ha sido vista como (SG. Vivi-da), casi sólo como deducción racional de unas premisas. Sin quitar a la fe nada de su necesidad de fundamentación razonable... hay que añadir... que la fe no se transmite por la vía deductiva, sino por lo ella cabría denominar ‘resonancia’ (SG, fidatzea, jarraitzea*). Quizá sea bueno recordar que la pala-bra ‘creer’... viene de cor dar: entregar el corazón”. * MARDONES, J, M., *Matar a nuestros dioses*, PPC, Madrid, 2006, 86. or.: “Los creyentes son los que han escuchado, como Jesús, la invitación a trabajar por el Reino de Dios”

bere baitan, ezagutzari dagozkionak, baina bai eta izate emozionalari dagozkiokoenak ere hutsik sentitzen eta nabaritzen garenean baikaude, hain zuzen, Jainkoaren babesaren beharrean...: Nik uste dut fede erlijiosoa, neretzat behintzat eta jende askorentzat, ez dela razionalki ez eta sikologikoki ziurtasun bat, 'Ni ziur nago sinesduna naizela eta Jainkoa dagoela eta ziur nago'. Ez, nik ziurtasun hori ez daukat, eta gainera uste dut ziurtasun hori izatea oso zaila dela⁸...

- b. aberasgarria zaigun jaiko- eta giza sakontasun zein irekitasunera: *Nire espirituaren sakonak Jainko- sakonari deika eta oibuka dagokio: sakon biotarik zein sakonena?* (Silesius), zeinen barruan: *Se oye tan solo una infinita escucha* (J. A. Valente⁹), sinesmena, batik bat, Jesukristoren Jainkoaz fidatzea bihurtzen joaten zaigun (GONZALEZ FAUS, J. I., *Confio. Comentario al Credo cristiano*): *Razionalki, arrazoiarekin fededuna naiz? -azaltzen digu Xabierrek- Ba, ez dakit, baina otoitzaren beharra baldin badet, nik baino indartsuagoa den norbaiti, gorago dagoen norbaiti apelatu behar baldin badiot, eskatu behar baldin badiot, bere aurrean negar egin behar baldin badut, eta neure barnetik hori ateratzen baldin bada, ba ni, neurri batean fededuna izango naiz¹⁰.*

Hitz hutsak? Ba ezetz dirudi: *Orduan nik dudana da erlijioaren dimentsio hori bizi nahi izatea: alde batetik, barruak libreaerazi zidan, askaerazi zidan sentimendu hori, atxikimendu hori bilatu eta aurkitu nahia, handiagoa den norbaitetikiko, Jainkoarekiko; eta besterik, hori eraman nahi izan det inguruekiko batera, solidarizatu¹¹.*

⁸ Euskadi Irratia. *Berria*, 09.01.30.

⁹ VALENTE, J. A., "Tamquam centrum circuli": "Bajé desde mí mismo / hasta tu centro, dios, hasta tu rostro / que nadie puede ver y sólo / es esta cegadora, en esta oscura explosión de luz se manifiesta".

¹⁰ LETE, X., Euskadi Irratian.

¹¹ *Ibidem*.

4.^a Xabier ez zen markarik gabeko sinestuna. Kristaua zen: *Nazaretoko Jesus erabat funtsezkoa da gizadiaren historian antzinako gizarteetan obiturak ez ziren baloreak- errukia, barkamena, pobreziaren goraijamena...- lehen tokian jarri zituelako*¹²... eta ez, ohikoa izaten zaigun ohitura edo tradizio antzu batengatik, baizik eta Nazaretoko Jesusen Espirituak sorrarazten zion humanizazio osoago batera dinamikagatik (humanizaziorik osoenera¹³, kristau esperientziaz): *Alde horretatik, uste dut Jesusen 'mendiko irakaspena' irakurri beharko genukeela behin eta berri, han baitaude adieraziak Jainkoarengana hurbil gaitzeketen exigentziak: errukia, barkamena, eskuzabaltasuna, bihotz baretasuna, sotiltasuna, zebaztasuna. Ez bortizkeriarik, ez itxurakeriarik, ez legalismorik, ez erredundantziarik. 'Otoitz egietan, ez ari esan eta esan, jentilek obi duten bezala, uste baitute beren hitz jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuekaskatu baino lehen'(Mateoren Ebanjeliotik)*¹⁴.

Ondo iruditzen zait Xabier Leteren literatura-ekarpenak go-
restea... baina kristau sinesmenean Xabierren emariak isilean
uzten baditugu, guztion kalterako dela deritzot. Denik galtzai-
le. Zurrumbilo irense horretan gabiltzala uste dut. Pena da, C.
P. Cavafis-ek esan baitzuenez: *Poeten begirada zorrotzagoa
baita*. Ez dezagun alferrik (edo partzialki) galdu.

Sebastian Gartzia Trujillo

Bilboko Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutua.

¹²*Hemen*, 4, urria-abendua, 2004, 81-102. or.

¹³ ESTRADA, J. A., *La pregunta por Dios*, Desclee de Brouwer, Bilbao, 2005, 408. or.: "En la práctica, la religión como todo saber, se legitima en función de la promoción del hombre, por los frutos que ofrece en la línea de la persona".

¹⁴ Henrike Knörri bidalitako karta argitaragabea .